

JUAN MARI LEKUONA BERASATEGI (G.B.)

(1927.11.11-2005.12.05)



Joan zara,
Juan Mari,
Joan.
Mariak
eramango ahal zaitu!
mimodrametan zehar,
eskutxuen kraxkitinak lagun,
errota zahar betikoa dagoen
Leku Onera.

Oiartzun, 2005.12.05

Elixabete Perez Gaztelu

2005. urtearen azken hondarrean joan zaigu Juan Mari Lekuona, 68 urteak bete berriak zituela.

Apaiza, poeta, idazlea, euskaltzain osoa, Deustuko Unibertsitateko eta Donostiako apaizgaitegiko irakaslea, ahozko literaturaren ikertzailea, itzultzailea, testu- eta kanten egokitzailea..., alor asko utzi ditu landuta azken hatsa eman duen arte.

Lan gehienak liburu nahiz aldizkari espezializatuetan argitara eman zituen, ohikoa den bezala, baina horietan ez ezik, beste era bateko agerkarietan ere esku hartu zuen. Azken horien artean aipatzekoak dira herri-urtekarietan plazaratutakoak: *Oiartzun* urtekarian, 1956tik hasita hogeitau baina gehiago eta hemen, **Oarson**, ere lau lan daude bere izenean argitaratuta. Hiru lehenak (1965, 1971, 1974) berak sinatuak eta laugarrena (1989) Joxe Mari Aranalderena, baina Juan Mari Lekuona mintzagai duena.

Oarsoko lau lan horiek oso makulu lagungarriak dira Juan Mari Lekuonaren kezken, zaletasunen, pentsaeraren ildo batzuen berri izateko. Hortxe daukagu aurrekoarekin itxuragabeki eten nahi ez duen 1960-1970 urte luzeetako Lekuona berritzailea, hortxe Lekuona sortzailea, eta baita Lekuona ikertzailea ere. Ez du ematen, bada, aukerarik okerrena denik lau hanka horien gainean eraikitzea Juan Mari Lekuonaren omenalditxo hau.

Euskal kantagintza berri beharra

Juan Mari Lekuonak 60-70etako hamarraldietan bizi duen kezketako bat da euskal gizarteak berri beharra daukala: ez dago aurrera egiterik berritzen, eguneratzen ez bada. "La canción vasca moderna" (1965), **Oarso** urtekarian estreinatzeko argitaratutako artikulua, premia horren lekuko gardena da.

Ozen mintzatzen da Lekuona euskal kantagintza berritzeko premiaz. Betikoari muzin egin gabe ate-lehioak berriari zabaldu behar zaizkio, baina berriak aspaldikoa ordezkatu gabe. Euskal kantagintzaren soro zabalean denentzako adina toki badago: nahiz, itxura batean, aldaezina den folklorea, nahiz azken orduko bizi laburreko kanta arina izan.

Euskal kantagintzak hil edo bizikoa du berritzea, dela betiko ildotik aterata aire berrien arabera sortuz, dela atzerrian (Lekuonak Italian pasatutako urteek ere bere hondarra utziko zioten) auzoek sortua egokituz. Kanten mailaren gainetik bizirik irautea jartzen du:

Al abordar este tema nos es un tanto difícil no dar a nuestro trabajo un aire de **defensa**. Cuando el grupo «Soroak» presentó su programa «twist en euskera», oímos comentarios como éste: «¿Qué puede aportar a nuestro folklore esta música callejera?» (...) Pero no es precisamente el criterio de la calidad musical el que nos mueve a escribir en favor de la canción moderna euskérica, sino el criterio de la **actualidad** y la **supervivencia**. (Beltza gurea).



Berritu, egokitu beharra ez da urte horietako gazte txatxu batzuen berrikeria burugabea. Lekuonak atzera begiraten du bere garaian bizi dutena arrazoitzeko: ez al zuten, bada, euskaldunek gauza bera egin aspaldiko erromantzeak egokitzean? XIX. mendean Iparragirre “bardoak” ere, kritikak kritika, ez al zuen bide horretatik jo? Oiarzuarra zubigintzan ari da hemen: ez du ezerezetik sortzeko gonbitik egiten, lehengoaren berri izanda aurrera egiteko baizik.

Lekuonaren hitzok esanahiz betetzeko gogoan izan behar da noiz, 1965ean, zein girotan eta zeri aurre egiteko plazaratzen dituen.

Xabier Lete hainbatek miresten dugun oiarzuar poetak ongi baino hobeki azaltzen du hori guztia “Kanta berria, erresistentzi abestia” artikuluan (*Jakin*, 1977: 16), *Jakin* aldizkariak 1977an argitaratu zuen “Euskal Kanta berria” gaiari eskainitako alean.

Letek dio hastapenetako euskal kanta berri hark zenbaitengan susmo txarra piztu zuela: tradizionalistek ez zuten begi onez ikusi euskal gizartean ordu arte funtsezkotzat jotzen ziren “arau” modukoak (estetikoak, erlijiosoak, moralak, politikoak) kinkan jartzea. “Zeren beldur ziren horrela pentsatzen zutenak”, galdetzen du Letek, eta ondoren erantzun:

«Belaunaldien arteko urradura», eta horrelako beste topikoek, giro aldaketa baten beldurra estaltzen zuten: radikalizazio politiko eta gizarte bizitzaren laizizazioaren beldurra, hain zuzen.

Bada, Juan Mari Lekuona 38 urteko apaizak argi eta garbi egiten du berriaren alde. *Ez dakit-noizko-edertasun-betierekoaren* lainoak ez dizkio begiak estaltzen: euskal gizarteak aurrera egingo badu garaian garaiko joanarekin bat eginez egin beharko du. Honela bukatzen du **Oarsoko** artikulua:

Aun cuando no quedara rastro alguno de todo lo moderno en nuestro cancionero, merece la pena realizar este esfuerzo de creación y de asimilación, a cambio de que nuestra milenaria lengua evite el anquilosamiento y mantenga el ritmo de las generaciones actuales.

Eta Lekuonak asmo berritzailea eginbide bihurtzen du. Errealismo osoz bi ariketari ezinbestean eta berehala heldu behar zaiela dio: kantak sortu behar dira eta jendartean zabaldu behar dira. Aipagarria da zenbateraino ohartzen den urratu beharreko bidearen nondik norakoaz.

- XX. mendeko euskaldunak bere burua ispilatua ikusteko moduko kantak plazaratu behar dira, bai euskal kantariak sortuak, bai beste hizkuntzetakoak euskarara itzultita (Nemesio Etxanizen eta J. A. Villarren ahaleginak ahotan hartzen ditu).
- euskal kantuek bizia izango badu, zabaldu beharra dauka; merkatuan sartu beharra¹.
Merezi du Juan Mari Lekuonaren hitzak hona ekartzea:

La canción moderna nace y vive en este clima determinado, constituido por estos elementos: un fondo de interés comercial que impone sus leyes, unos festivales de la canción que presentan la obras, unas casas distribuidoras encargadas de la colocación del género, el acceso posible al cine, a la radio, a la televisión. Pretender estar presentes en la canción moderna sólo con artistas, **dejando en segundo plano los intereses comerciales**, es pensar con cabeza de otras épocas y, por tanto, camino del fracaso. El **tomar en serio el capítulo de la difusión** es la única posibilidad de hacernos presentes en el mundo de la canción moderna y de hacer nuestro lo bueno –o no tan bueno–, pero actual, y que va floreciendo en otras partes. (Beltz. gurea).

Eta, gainera, horren guztiaren aldeko apustua ez du egitasmo hutsean uzten; egin egiten du. Euskarara egokitzen ditu garai hartan boladan zeuden hainbat kanta: ezagunenak, seguru aski, "Gaztetxo naiz" (1965), "Arratsa Moskun" (1967). Eta egokitu ez ezik, sortu ere egiten ditu. Horietako batzuk kantaldi nahiz diskoetan beste kantari batzuek abesteko (euskal kantagintzan ezinbestean aipatu behar den Julen anaiak abesten zuen "Eliza pobrea", esate baterako), beste batzuk, berriz, jende xeheak elizan kantatzeko ("Or zaude Jesus aldarean", "Azken afari"...), ez baitugu ahaztu behar Juan Mari Lekuona apaiza dela, Vatikanoko II.aren ondoko apaiza. Juan Mari Lekuona eta kantagintza hizpidean ditugun honetan, kantatzeko sortu ez bazituen ere, gerora kantariak musikatu dituzten oiartzuarraren poemak ere aipatu gabe ezin dira utzi. Nork ez du "Errota zahar maitea" Lourdes Iriondo hil berriaren eta Xabier Leteren ahotik entzun? Edo Imanol zenak kantatzen zuen "Eskutxuek jo dute kriskitin-kraskitin" hasiera duen koplak inoiz kantatu?

Juan Mari, Julen eta Andoni anaiak kantatzen Pagoarten, Oiartzunen. 1998ko udan. (Argazkia *Bidegileak* saileko liburuxkatik hartu dugu).

Bistan da, hortaz, Lekuonatarrengandik zekarren kantuzaletasuna ez zela Juan Marirengan antzu bilakatu. Lekuonatarrek eta kantua elkarren besotik dabilta eta Juan Mari ez da uztartze horretan atzean ibili.

Bidenabar esan dezagun Juan Mari Lekuonak ondutako kanteak (erlijio-gaiko kanteak bereziki) eta kanta horiek izan duten zabalkundeak arreta berezia mereziko luketela.

Laburbiltzeko –eta mereziko lukeen ikerketa sakonagoa egin bitartean–, uste dut esan daitekeela "euskal kanta berria" eta haren ondokoa den gaurkoa ez liratekeela gauza bera izango Juan Mari Lekuonaren bultzada berritzailea tarteko izan ez balitz.

Lekuona poeta ere berritasun eske

1936ko gerraren ondorioz, literatura landuarekin harremana izateko aukera aparta izan zuen Juan Mari Lekuonak: Miguel Antonio Iñarra lehengusuaren eta osaba Manuel Lekuonaren Gasteizko seminarioko liburu guztiak *Etxe txiki* Lekuonatarren sorlekura ekarri behar izan zituzten. Hortxe izan zuen Juan Mari literatura landua ber-bertatik gozatzeko eta ikasteko aukera.

Badugu berriz ere **Oarson** Lekuonaren arlo honetako langintzaren zantzua, Joxe Mari Aranalde zenari esker. Aranaldek (Uriarte gotzainak Oiartzunen hiletetan Juan Mari Lekuonarekin eta Luis Villasanterekin egoki batu zuenak) Juan Mari euskaltzain oso izendatu zutela eta, "Juan Mari Lekuona" lana argitaratu zuen 1989an.

1. *Jakin* aldizkariko 1977ko ale horretan bertan, alderdi material horren gaineko oso berri jakingarriak ematen ditu Joxe Ramon Belokik.

Lan horretan, bizitzaren eta lanen berri eman ondoren, Lekuonaren "Porlandi" izeneko olerkia (*Mindura gaur* lehen poemategikoa –60ko hamarraldikoa–) jaso nahi izan zuen. Aranalderen iritzirako, Juan Mariren "gizatasunaren" eta "olerkari izatearen" erakusgarri aukerakoa.

Lekuonak 1960-1970 urteetan gizarte gaia muin-muinean bizi du (Añorgako parrokiaren egin zituen urteek ere bere arrastoa utziko zioten): euskal gizarteak aldatzen ari da, baserri eta mendi usaina galdu eta beste usain-giro batzuk ari dira hedatzen. Horixe da olerkiaren gaia eta izenbururako olerkariak asmatzen duen *porlandi* hitzak ere horixe gorpuztu nahi du.

Baserri giroa eta porlana, "zementu erria", elkarren kontra jartzen ditu bigarrenaren alde egiteko. Euskal gizarteak ez du beste aterabiderik, galtzen duena galduta ere, porlanaren bideari ekitea baizik; bide horrek bakarrik ekar dezake "giza neurritz" lana eta jana.

**Bedeinkatzen det
porlandiak dun galera.
Izadiaren aberastasun
ori galtzea obe da:
eta geienak iritxi bitez
giza-neurritz bizitzera.
Utziko ditut baserria ta
nentorke dana uztera,
utzi agian euskera:
baiñan iritxi bitez,
pobre guziak
eguneroko ogia izatera.**

Modernitatea, berrizaletasuna, kanpokoa, eta betikoa, hemengoa oso elkarren besotik ez zebiltzan garaian –euskaldun batzuek elkarren etsaiak zirela ere uste zutenean– Lekuonak oso jokaera garbia izan zuen berriaren alde: euskal gizarte tradizionalaren ezaugarriak galdu nahia-go ditu, gizartean zuzenbidea nagusitzeko bada.



Ahozko literaturaren azterbideak berri

Ahozko literatura Juan Mari Lekuonaren bizitzan ez zen zaletasun hutsa izan, afizioa eta ofizioa batu ahal izan baitzituen: ahozko literaturaz gozatu ez ezik, literatura mota hori aztergai ere egin zuen. Bai Euskaltzaindik lanean (euskaltzain urgazle izendatu zuten 1963tik aurrera), bai Deustuko Unibertsitatean (1978az geroztik) literaturara hurbiltzeko beste modu honi etekin aski atera zion. Erretiratu ondoren Deustuko Unibertsitateak eskaini zion *Ikaskuntzak euskal literaturaz 1974-1996* bere lanen antologia mardula (1998; 670 orrialde) begiratu besterik ez dago ohartzeko zenbat ordu eskaini zizkion bizitzan zehar horren gogoko zituen ahozko eta erdi ahozko euskal literatura aztertzeari.

“Bertsolaritza aztertze bideak” (1974) **Oarson** argitaratu zuen bigarren artikulua dugu batasun emankor horren lehen zantzuetako bat. Lan horretan, aurrekoek egindako azterlana estimatzen du (osaba Manuel, aita Zavala, Santi Onaindia), baina bere “lan-metodo berria” proposatzen du:

Baiñan, bizitza aurrera doan eran, etorri behar dute, bertsolaritza aztertze lan hontan, aurrerapide egin araziko diguten lan-metodo berriak. Besteak beste, neronek oraintsu erabili dutena da bat: gaurko sozio-kulturazko aldaketak bertsolaritzari dagoiten eragiña aztertzea. Bizitzak, bere maila guztietan, azterketa berriak egitera garama (sic); eta azterketa berri hauek, berriz, ikusmolde berrietara. Eta horrelako zerbait egiten hasi beharra zegoen bertsolaritzarekin ere. (132 or.).

Lan-metodo berriak, azterketa berriak, ikusmolde berriak... Lekuona irakasle ikertzaileak esparru honetan ere berrikuntzaren premia garbia ikusten du: “euskal ikaskuntzetan” ere, gaiak zaharrak izanagatik, egiteko modu berriak txertatu behar dira. Baina aurrekoek egindako lana aurrean edukita, ez hutsetik abiatuta. Lekuona zubigintzan ari da berriz ere.

Erreteriarri gorazarre. Nolako gaia, halako moldea

San Juan kaleko sukaldeko famili giroa erabat erabakigarria izan zen Juan Mari Lekuonaren ibilbidean. Amaren aldetik, *Berri berriko* Berasategitarrengandik, bertsozaletasuna hartu zuen, *Etxe txikiko* Lekuonatarrengandik, berriz, lehenxeago ekarri dugun kanturako grina.

Amaren aldeko zaletasun horren ispilu gardena da, hain zuzen, 1971ko **Oarsoko** “Xenpelar il zaneke eun-urte-urrena (Errimadun itzaldia)”.

Epaille-lanean sorterrian, Madalensoro pilotalekuan, osaba Manuel eta Oiartzungo bertsolari batzuekin. Ezker-eskuin: Juan Mari, Koxme Lizaso, Martin Urtegi Belaunzarán “Bakailo”, Inaxio Pikabea Mitxelena “Portugal”, Jose Luis Lekuona Garaiar “Lexoti” eta Manuel Lekuona.. (Argazkia *Bidegileak* saileko liburuxkatik hartu dugu).

“Errimadun itzaldi” honetan Lekuonak batu nahi izan zituen mintzagaia –Xenpelar bertsolariaren jaiotzaren lehen mendeurrena– eta mintzamoldea –oiartzuar poetak hamabi bertsoko hitzaldi jakingarria ondu zuen–. Alegia, Lekuonak hemen erakutsi zuen bertsoak eta bertsolariak aztertu ez ezik, haien moduan aritzen ere bazekiela.

Poeta-bertsolaria hamabi bertsoez baliatzen da hainbat gai ahotan hartzeko: Xenpelarren bizitza (San Markos egiko bertso gordairuan, toki argitsuan zan jaio: / Kristautzean, berriz, erosotasunez Oiartzungo elizan bataio (2. bertsoan), Eriotz atarian eraso zitzaion baztanga gaiztoaren jasa. / Madalen kalean zerura zitzaigun emanikan atzen-arnasa (11.)), haren izaeraren eta bertso gaien nondik norakoa (Umoretasunez, Xenpelar-umore begira gozoko ta fiña (4.)), Gero gizonaren barru-azpildurak argitaratutzen ba-daki (5.), Arritutzen gaitu gizon-ezjakiñak orla ematea (erlijio gaien) berria (6.), Erriaren itza duan bertsolari; gizarte arazoan abotsa / Bera izan degu ezker-eskubiko kontzientzi argi, zorrotza (7.), Musika alorrean, melodi-sortzaile (8.), pake zalea da Errenderiko seme jator (10.)), Xenpelar argia, aupegiz beltzaran, adimen indarrez zorrotza. / Irudimen bizi, esaundaz aberats, itsas zabal antzo biotza (12.), irabazitako sona («Mutil zarrarenak», «Betroi bati» eta «Prantzes bati buruz» lekuko: / Iñoiz bertso auek euskerak dirauño ez dira sekulan aztuko (...) Errenderiarrok: Orixeren irtiz Euskalerrri goiko naiz beko, / Ez da iñun egin bertso sorketa bat «Mutil zar» kantaren pareko (4.)).

Baina Xenpelarren gainekoen berri izateko ez ezik, bestetarako informazio iturria ere bada hitzaldi hau: Erreteriarriko bertsolari zaharrak (Bertsolari zarrak: Zapirain anaiak, Txirrita, Fanderi, Telleri... / Errenderik ainbat bertso eman duen erriak, ez daude beste bi (3.)), edo Xenpelarren

garaiko gizarte-giroa (industri-langintza jaiotzen. / Norteko trenakin olaha-ugoldeak gero ta indar-tsuago iyotzen (7.)). Lekuonari bertsolarien, ez bakarrik Xenpelarren, irudia nola begitantzen zaion jakiteko modua ere ematen du: Ez dezagun aztu: erri-jakinduri azalpen da bertsolaria (6.)

Azken bertsorako –garrantzitsuenerako– gordetzen du oiartzuarrak, berriz, Errenteriarri eta omenduari gorazarrea egitea: Eun urte-urrenean Euskalerrri osoak bi gauz ditu goguangarri: / Gizon bat, erri bat. Zorion bieri: Xenpelar eta Errenderi (12.).

4. Azkena

Oiartzuarrak Errenteriarri eta errenteriarroi halako bertsoak eskainita, eta jakinik ere ez dela bere mailara urrutitik ere iritsiko, zer gutxiago egin zezakeen errenteriar honek irakasle, lankide eta lagun izan zuen Juan Mari gizon atsegin, irribarretsu, baina aldi berean sendo haren oroigarria hona ekarri baino?

Oroigarria osatzeko ibilitako bidea –oiartzuarrak errenteriarren urtekari honetan plazara-tutakoetatik bere izaera eta langintza argitzeko argi-printza batzuk eskaintzea– mugatua dela esan beharrik ez dago. Nola murriztu halako gizon bat orrialde batzuen luze-laburrera!

Orrialde hauetara ekarria baino askoz gehiago zen Juan Mari: umorezalea, bere iritziei tinko eusten zekiena, kirolzalea –buruarekin lan egiten bazuen ere, kirola maite zuen: futbola (Realeko bazkidea ere bazen), igeri egitea, pilota, mendia... Alegia, pitagorikoen antzera, gorputza eta burua lantzea maite zuen: “Mens sana in corpore sano”–, artezalea (literatura, eskultura, pintura, zinema, musika), estetikazalea –edertasunak, sortzailetasunak erakartzen zuela esango nuke–...

Eta askoz gehiago ere bai, jakina.

Beharrik, artean bizirik zegoela esku artean eduki eta bere betiko irribarre goxoaz hartu ahal izan zuen bere bizitza eta lanen gaineko liburuxka argitaratu berria. *Bidegileak* sailean plazaratuta dago, Juan San Martin, “Iratzeder” eta Patxi Altuna euskaltzainen karpeta berean. Altuna eta Lekuona maisuon liburuxkok, ikasle eta lankide izan gintuzten Ana Toledo Lezetak, Esther Zulaika Ijurkok eta neronek zintotasun eta maitasun guztiarekin egin ditugu. Musu handi bana.

http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/38%20LEKUONA.pdf

